

ANTONIO CASADO DA ROCHA

ISLANDIERA IKASTEN



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso du

© Antonio Casado da Rocha

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2014ko azaroa

ISBN: 978-84-941044-9-7

AZALEKO IRUDIA: DEBRA KANG DEAN

EGILEAREN ARGAZKIA: JONAS CASADO ETXEVERRIA

AZALAREN DISEINUA: A & R DE GOROSTARZU

Lege-gordailua: SS-831-2014

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE - Ategorrieta Hiribidea, 3-3.
20013 Donostia. Tel.: 943-270433

BANATZAILEAK:

BITARTE – 31195 BERRIOZAR (NAFARROA).

TEL.: 948-302239

JAKIN – 64100 BAIONA (LAPURDI)

TEL.: 05592232

[HTTPS://SITES.GOOGLE.COM/A/UTRIUSQUE.COM/UTRIUSQUE-VASCONIAE/](https://sites.google.com/a/utrusque.com/utrusque-vasconiae/)

Debekatuta dago, legean aurrikusitako kasuetan izan ezik, liburu honen erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa eta eraldaketa egitea jabetza intelektuala duten titularren baimenik gabe. Aipatutako eskubideak haustea jabetza intelektualaren kontrako delitutzat har daiteke (Kodigo Penaleko 270 art. eta ond.)

AURKIBIDEA

DONOSTIAN DANTZARI	9
ATARIKO PROBA	11
<i>ALLEGRO MA NON TROPPO</i>	13
AUTOHIDROGRAFIA	15
2012KO OTSAILAREN 4EAN	16
ASTE NAGUSIA	17
EUSKAL DANTZAK	18
1813-2013	19
AURRESKUAREN APOLOGIA	20
2013KO ABUZTUAREN 3 IN	22
2013KO IRAILAREN 1EAN	24
LARUNBATEKO GOIZ BATEZ “ERREGE TXO- PITAK” DANTZA TALDEA IKUSTEAN	25
POETIKA TTIPIA	26
ELKARKETAK	27
HAUXE DA	28
BIHOTZ BARNETEGIAN	31
<i>GATHA</i>	33
GOIZERDIAN	34
CHAMPOURCINEKO ERNESTINARI AGURRA	35
LEONARD COHENEK REBECCA DE MORNAYRI DIOTSO	37

ERREGE EGUNA	38
TRIOLET	39
HEGOALDETIK	40
FAMILIA	42
NEGUAK BERDEAN	43
MARIOREKIN JOLASEAN DABILEN HAUR BATI	44
MEDITAZIO APOLOTARRA	45
<i>SABBATH</i>	46
TATUAJEA	47
<i>MAGISTER DIXIT</i>	48
EZ HIL INOR	49
<i>THE HORROR! THE HORROR!</i>	50
AHP	51
BOSTEKOAK	52
AZKENA	53
LABA/LURRA	55
ISLANDIERA IKASTEN	57
LEHENENGO ALDIA	58
ELEBITASUNA	59
<i>VADID KREFST VARÚÐAR</i>	
(TRAFIKO SEINALE BAT)	60
HAMNAVOE	61
HIRUREHUN MILA	62
ONDO BIZI	63
<i>SPÁNVERJAVÍGIN</i>	64
<i>POSTÚRINN</i>	67
HITZ DEBEKATUAK	68
<i>AURORA BOREALIS</i>	69
BARKATU AMA	70
TERTANGAKO KOPLAK	71
<i>BLESS</i>	72

URRUNEKO UNIBERTSITATEAN	73
EGUNKARI BATEN PASARTEA	75
OFIZIOA	76
ERRESUMA BATUARI LOTZEKO POEMA ...	77
EZ DAKIT	78
LOT	79
POETIKA EZ HAIN TTIPIA	81
1512 (LK 17,21)	82
BURUJABETZA	83
<i>KELLSEKO</i> LIBURUA IKUSTEAN	84
<i>THE XXEN</i> KANTUA GOGOAN GRAFFITI BAT IKUSTEAN	86
GALES (I)	87
ZUBIA	88
GALES (II)	89
KENSINGTON GARDENS	90
GALES (III)	91
POPOLO KUTXA	92
KOMETA	94
CORAZONISTA	96
<i>SOMMELIER</i>	97
ESKER ONAK	99

Gehiegikeria horiek direla eta, pitzadura/paisaia genomikoa ez da konponduko den zerbait, gero denok modu etikoan bizi gaitezen betiko. Pitzadura/paisaia genomikoa ez da kontrolatuko den zerbait, zientzia zehatzago baten bidez, edo ordezkartzan indarturiko politiken edo etika humanistago baten bidez. Pitzadura/paisaia genomikoa bizi garen lekua da, eta, Islandia bezala, mundu latz/eder bat da. Beharbada ez gara Islandian bizi, baina, egun, laballurra dugu bizileku. Nahiz eta lurralde hori aldakorregia izan guztiz konponduta edo kontrolatuta izateko, genomikako laballurrean bizi daiteke modu gutxi-asko artatsuan, gutxi-asko zuhurrean, gutxi-asko justuan, gutxi-asko miresgarrian.

MIKE FORTUN

DONOSTIAN DANTZARI

*Pizti eta ederren artean gabiltza
munduko photo call handiengan.*

HERBJÖRG MARÍA BJÖRNSSON

ATARIKO PROBA

*Some men go fishing all their lives without ever
realizing it's not fish they are after.*

HENRY DAVID THOREAUREN apokrifo

Gau honetan deitu orde
zintzilikatu dugu
margolana bailitzan
Walden laku isilaren
ekialdeko argazki bat

euria eta masusten
koloreko aintziran
sartutako laguna
(kanabera eta zira
botak ur txikietan)

esadazu irakurle
nor ote den lakua
nor ote den laguna
nor ote den arraina
(arrainen bila ez nabil)

arrantzalea banintz
poema litzateke
amua atseginez
niregana zaitzadan
une batez bada ere

ura banintz ordea
belaunetaraino helduz
hau litzateke arrain
tintazkoa

ertzean
ahoskatuko dituena
isilik silaba hauek.

ALLEGRO MA NON TROPPO

Behobiara heldu orduko
korrikalari armada batekin eseri naiz
hogeï mila lagun eta gogoratu dut
kasko erromatarrek gandorra zutela
lumez edo zaldi ilez egina

saiatu naiz moteltzen
analogiarako nire gogo geldiezina
lehiaketa oraindik ez delako hasi
baina ezin izan diot pentsatzeari utzi
bizitzan nola gaurkoan helburua dela
helmugara iristea aurrezirik gabe
amaitzea batera guztiz agortua

ukabilak itxita dituen bihotz hotzari
ez zaio ezer axola ez bada
ororen hustasunaren sentimendua
agian horregatik urtaro honetan (diotenez
profesionalki malenkoniatsuena dena)
ez diet jaramonik egingo metaforei
goitik behera erortzen direnak irteerarantz goazela

aireportuetan hegazkinak
pistara doazen bezala
banan-banan
aireratzen gara oinetako arinen gainean
eukaliptoizko spray hodeitxoan azpian
eta Antzinako Greziaren tropoen artean

(*tropo*, jatorrian “bira” edo “helbidea” esan nahi zuen
hitza)

korrika egiteak soilik Donostiaratuko gaitu
hotzikarak literalki ematen dizkit ikusteak
etsi egin duen lehenengo korrikalaria
partidaren hasieran
auto istripuan hil ziren gazteak bezalaxe
eta oraino ez gara Gaintxurizketa ikasketa-kurbara
heldu
ez eta Mirakruz gaineko gure Golgota txikira ere.

AUTOHIDROGRAFIA

Ene bizitzan zarata handirik ez
(portuko txatarra jauziak eta
trafikoaren olatu talka izan ezik)
ez eta amorru handirik ere

baina ipuinak bai badirudiela
ergel batek kontaturikoa
Europako karotida arterian
edo zain jugularrean jaioa

agian ez dago inongo ibairik
baizik eta zoriak sortutako
iturburu erreka eta elkartze
ibaiadar eta bokaleak

eta hala ere horra nire urtegiak
batasun narratiboaz beterik
Egoko Konfederazio Hidrografikoa
nire egitasmoen zerbitzuan

tartean beti ni nagoelako
iragan kaotiko eta
etorkizuneko ordenaren
artean beti ni

ur molekula hau.

2012KO OTSAILAREN 4EAN

Sei urtean behin elurra Donostian
mirari hori gertatzen den bakoitzean
gure argazkilariak kalera doaz
kamara lepoan gurutzea bezala
poetak etxeratzen diren bezain fite
koadernoak agudo zabaltzen dute
nik ez dut zertan bata ala bestea izan
alabarekin parketik noalako
*ballet*eko eskolarako bidean
baina ahoa zabal-zabalik dugu
aho batez maluta hauek irensteko
(hain dira jaisten harro
nor bere buru
“ez gaitu inork berdinduko” esanez)
beste batzuek
jakintsuagoek edo
zaharragoek
elizan igandero
mingaina ateratzen duten bezalaxe.

ASTE NAGUSIA

Badiako buia gorriak nola
eguzkia itsasoan datza
Irla eta Kaiaren artean
ur leunak ezti itxurakoak
ur epelak jainko berde batenak

patxada ederra zabaldu da hirian

bere eguneroko magia eginez
itsasoak eguzkia irentsi du
buiak inbidiaz jota utzita
Alde Zaharrak irensten nauela.

EUSKAL DANTZAK

Nik ere nire erara
dantzatu ohi dut
olatuek altxatu
naute eta aurreku

egin diot irlari
Kontxako badian
arin-arin nire oinak
arrainak bailiran

behe-lainozko buztanak
Adarra eta Onddi
mendi bien artean
azeria dabil

horrela dirau dantzak
Euskal Herrikoa
ez diezagutela ken
dantzatutakoa.

1813-2013

Tan chic y tan jatorra

horra

horra

Donostia Miguel d'Orsen arabera

baina egon badago gehiago jauna
setioa eta sutea eta

kolore anitzeko uniformeak
Bretxatik bortxaz sartu dira baina

Bulebarreko aparkalekuan
bilduko gara herri harresian.

AURRESKUAREN APOLOGIA

*No hay baile más ridículo para un hombre solo que el
sirtaki griego, si exceptuamos probablemente
el aurreku vasco.*

JAVIER MARÍAS

Hobea litzateke
(Lady Chatterleyren maitaleak dioenez)
gizonek dantza zaharrak biluzik
edo praka estu gorritz jantzita
egingo balituzte

zalantzak ditut aurrekuaz
txapela buruan eta diruaren truke
egun euritsu batez
ezkonberrien aurrean
banderaz estalitako
hilkutxaren edota
segizioaren aurrean
hemen dantzatzen dugun aurrekuaz

plazera
plazera baldin badago
ikuste hutsean datza
dantzariaren aurpegian baino

irri imintziorik ez
ezta zirrara azaltzerik ere

ez baita zirikatze bat
ohore ematekoa baizik

feudal eta dotore ari da
*X*edo *K* hizkien antzera
oin puntaz borobiltxoak marrazten
arrain legez aurrera egiten
ezinezko goienetan hanka altxatzen

neska-mutil lotsatia bailitzan
adierazteko beste
modurik ez dakiena
saltoka eta geldirik ez bada
bere agur simetriko konplexua
poesia bezain errepikakor
eta funtsezkoa den erritualean
dantzariak
ikuslea bera altxatzen du
bizitza bezain motza
eta barregarria
den hegaldi honetan
oholtzaren gainera
lurreratu baino lehen.

2013KO ABUZTUAREN 31N

Hemen ere armada ezjakinek
talka egiten zuten bitartean
gauez eta egunez bazegoen
uraren gainean eta
zeruaren azpian hiri bat
non gaur ezkontza bat ospatu den

ezteietara gonbidatuak
kanoikadak eta uniformeak
zaldia eta kazetariak
dena bat eginda Donostian
harresia zegoen tokian
hutsune bat dago

Bulebarra

duela berrehun urte ere
norbaitek ikusi al zituen
Doverreko labarrak Ulian
errainu eta zabal

itsasoak

tristuraren nota jo al zuen
hiri arrotza erditzen zela?

bikoteak hiriak bezala
ezin dira guztiz berreraiki
zerotik beti baitago ezer
dela kea dela behe-lainoa

sutea edo euriaren zentzua
gurean iraganak utzita

hondartza tapiza bihurturik
hiria zabalik agertzen da
etxeak erakusten dizkigu
urrezko erlauntz erraldoien antza
zutik daude badia lasaian
maite duguna ateratzeko

horrelakoak behar ditugu
elkarrekiko izan gaitezen
benetako

olatu talka bat

azula

berde dirdiratsua
marinel zaharraren baladan
edo egindakoaren uberan.

2013KO IRAILAREN 1EAN

Abuztuaren hogeita hamaikan
hasi ohi da kontaketa
eta geroztik neurtzen dut nik
urte akademikoetan
irail epelak udaren sua
azalari itsatsia
zirimiriaz apaltzen digu
udazkena Donostian.

LARUNBATEKO GOIZ BATEZ
“ERREGE TXOPITAK” DANTZA TALDEA
IKUSTEAN

Baxenabarreko bandera bistan
bederatzitan balkoitik begira
beirazko baso baten biribilean
besta bizia basoaren biran

baten batek beharra baleuka
beraiekin *balleta* bila beza
bilinbolaka basoaren biran
behorra benetakoa bailitzan

baina bisitariak badakite
botila barik bihotzak berpizten
baita barneko bozak baretzen be

biraoak barre bilakatuta
bestaldetik betor bozkarioa
besarkada bat bezain bihozbera.

POETIKA TTIPIA

Stabilo Boss
Staedtler eta Milan
orri eroriak

poesia da argia
eta takigrafia.

ELKARKETAK

Erreterian badago Pekin izeneko erreka. Filipinetako uhartedian badago Hernani izeneko herria; Pekinekoak dira hango jatetxe txinatarraren jabeak. Euskara ikasten duten haurrak bizi dira Erroman. Akureyrin, Zirkulu Polar Artikutik gertu, italiar batek islandiarrez hitz egiten du. (Nora eta James) Joycetarren seme-alabak Triesten jaio ziren (George eta Lucia). Hil aurretik, Samuel Beckettek *Comment dire* izenburuko poema bat izkiriatu zuen; hori esan zidan Orioko ikasle batek, nirekin erasmustaturik. Gaur egun Orioko baratze batean Europako bandera jarri dute, autopistako zubitik ikusgai, Donostiarako erreian. Kontxako bidegorrian badago Wiesbadenetik etorritako txirringa estatiko bat. Donostian (baina Erreterian) jaio nintzen ni; bidaia dezente egin ditut, non eta sorterrian.

HAUXE DA

I.

Hauxe da nire hiria
gurasoek munduratu
ninduten aireportua

nahiz eta hemen ez bizi
bere periferiatik
egunero nator hona

nire autohidrografia
idatzi dudan tokia
hatsa tintatzat hartuta

bertan ez nagoela ere
bertan nagoela ustez
eman ditudan egunak

eta hauxe da bitxiena
ez da perfektua baina
zurea da

gurea da.

II.

Hauxe da nire hizkuntza
iragan hurbil batean
hirian irakatsia

nahiz eta abila ez izan
ikasi nahi dut benetan
hitzetan dagoen dantza

laguntzarik ez zait falta
baina deklinabideetan
galdu naiz askotan

aditz trinkoen basoan
konjugazioen tauletan
eman ditudan egunak

eta hauxe da bitxiena
inorena ez den arren
zurea da

gurea da.

III.

Hauxe da nire herria
belaunaldiz belaunaldi
hizkuntzak irakatsia

filmetako *cameoak*
egiten ditu aldizka
historian sartu-irtenak

muino batean etzanda
kontakizun desberdinak
itsasoari begira

iparrean nagoela
beste batentzat hegoan
eman ditudan egunak

eta hauxe da bitxiena
nahiz eta zer den ez jakin
zurea da
gurea da.

BIHOTZ BARNETEGIAN

*Merezi du negu iluna igarotzeak
aurora borealis bat ikusteko.*

EINAR MÁR, XAVIER MORETEKIN solasean

GATHA

Seme-alaben musu lokartuaren aurrean
me comprometo con las diez mil cosas
to stay on the sober side of poetry
eta etxea hitz hutsez defendituko dudala.

When I see my child's sleepy face
hamaika izakiekin zin egiten dut
de la poesía en la sobriedad
and defend our home with bare words.

Ante el rostro soñoliento de mi hij@
I vow with all beings
poesiaz ez naizela hordituko
a defender a palabra limpia nuestra casa.

GOIZERDIAN

eguzkiak bere gona plisatua jantzi du
eta zuhaitzen hostoen artean
erakusten digu
jira-biran

erratarik gabeko libururik ez
ezta akatsik gabeko mintzaldirik ere
(txoriek ere bertxiotu egin behar dute)

dena txukun dago
kuxidade gutxiko mundu honetan.

CHAMPOURCINEKO ERNESTINARI
AGURRA

*Pero llega un momento en que el Todo se esconde
o se nos aparece disfrazado de Nada.*

ERNESTINA DE CHAMPOURCIN

Batzuek diote jainkoa janzten dela Ezerezaz
besteek gauza Oro dela mozorrotutako ezereza
eta beste batzuk errua Nietzscherena dela

dena

ezereza

zer axola du?

bidea da bata besteraino eta bueltan

zenbat eta gehiago behatu
orduan eta errealagoa deritzot
bien arteko harremanari

botila honen forma
eta barruan duen hutsa

nola ardo hondarrek
poliki-poliki sortzen duten
artxipelago bat nire kopan

azken beltzean gauzak
diren modukoak dira

zeruko ilgora
ahoaan dudan mahats hazia
handitu edo txikitu gabe

oihartzuna besterik ez den ahotsa
mundu osoko kalakan

zure bizitza komuneko
zulotik behera doana
kasu egin ezean

arretak mundua sortzen badu
zaintza da jainkoen ezaugarria.

LEONARD COHENEK REBECCA DE
MORNAYRI DIOTSO

Begira
hauxe da dakidana
ezkontza da munduko
praktika espiritualik gogorrena

jendea harritzen du
Baldy Mendian eserita
hainbeste ordu aste hilabete egoteak
baina ezkontzaren aldean hori ez da ezer...

ERREGE EGUNA

Eguzkia hodei baten gainean jazarri da
eta zelako eskuzabaltasunez
argi motelaz bete du bailara

eguzkia

 hori bai Errege Magoa
ardiak zuhaizpean jarri dituen

fruta eroria nola.

TRIOLET

Poemak jasotzeko jaioa zu zara
idatzi ditudanak atsegin ala ez
horrek ez du ukatzen *bitan esan beharra*
poemak jasotzeko jaioa zu zara
jolas gaitezen bada euskara-ingeles
irakurriko dugu larrua jo ordez
poemak jasotzeko jaioa zu zara
idatzi ditudanak atsegin ala ez.

HEGOALDETIK

Batzuen arabera maitasuna
bidaia baten antzekoa da
baina egia esan nire maitasunak

Islandiako hegoaldean dagoen
etxe desolatu baten antza du

tiraderan dautzan koilaretxoak
hesia besarkatzen duen huntza
bizilagunen katu gosetia

haiek bezala ukitu nahi zaitut
baina beste gela batean zaude

laborategiko lorategi hori
–*lora et labora*– lantzen ari zara
edo komuna garbitzen duzula

etxeko lanak bukatzen dakien
baten itxurak egiten ditut nik

etxeak ez du sekreturik gorde
garrasi eta hasperen egiten du
euria atetik sartu nahi duela

egunero zerbait hausten zaigu
gauero beste zerbait konpontzeko

teilatua udarako uzten dut
Islandiako hegoaldetik urrunegi
ez dagoen pospolo kutxa honetan

aterpe okerra bezain epela
betirako zu oheratzearen zain.

FAMILIA

Platonen errepublikako hezkuntzaren
eta Isaaken sakrifizioen artean
badago urezko tarte zabal bat

Mediterraneo puska bat
elkarrekin moldatzeko
gure eran antolatzeko

muturrezko ezintasunetik urrun
nahiz eta besteen antzekoa ez izan
horri familia deitzeko

eta harro egoteko modukoa.

NEGUAK BERDEAN

A ze distira duen
neguak berdean
eguzki izpi epelak
laguntzen duenean
naizen gazte zaharra
haritza bailitzan
negua gorri dela
ahaztu ezean.

MARIOREKIN JOLASEAN DABILEN HAUR BATI

Ez daukat bizitza gehiagorik
baina ni hiltzeak ez du axola
aurrera egiten baduzu

elkarrekin ibili gara
eta okerrago litzateke
zureak egingo balu

hainbeste aldiz salbatu duzu nirea
hainbeste arrisku ekidin
zuri esker

igandeko goiz horretan bezala
zure gela txukuntzeari ekin zenionean
nire burua ere txukundu zenuen

ez ezazu ahantzi lokarriak lotzea
eskularruak jantzi zama handiak jasoz gero
batez ere egin ezazu egiten duzun hori

age quod agis (barka latinkeria)
jokoa ez da amaitu
zure aitaren etxeaz oroitu

hortik idazten dizut eta.

MEDITAZIO APOLOTARRA

Egin ez ditzakedan
gauzen eta
ez egin ditzakedan
gauzen artean

ezin dut Dionisos
beti gainditu

bai ordea berarekin moldatu

sakrifizio ez diren
sakrifizioak
berari eskainiz

asteko barikuak
eta ordu erdiko
goizeko eserialdi hau.

SABBATH

Erljioren bat sortuko banu
erritual nagusia
izango leike larunbatetan
etxe garbia uztia
monastegian ez duzu zertan
erretiroa hartzia
zauden tokian badago beti
praktikatzeko aitzakia.

TATUAJEA

Ahulezia indartsuren bat baduzu
jainkoren bat aspaldi elikatua
hainbat ohitura hilgarri eta hilkorrak
dena delakoa

ikasi ezazu maitatzen
berak erakutsiko baitizkizu
zuhurtziaren beharra eta
santukeriaren arriskuak

goza ezazu homeopatia bailitzan
desiraren aho zorrotza kamustu arte
egunero

kalte izan ez dadin
(zauritzen zaituenak besteak ere zaurituko ditu)

eta kalte bazaizu orduan oneski
zure azalean idatzi ezazu
lagun ilustratuaren moduan
tintak argi zaitzan.

MAGISTER DIXIT

“Meditazioaren lehen fruitua
da igel-gabetasuna”
deklaratu zuen maisu gorenak
Aran herriko tenpluan

igelik gabeko gogo barek
ez du saltorik ohi egin
hementxe bertan eta oraingoan
arreta osoz gera dadin.

EZ HIL INOR

erraz da esaten
baina dena hil egiten da
zerbaiten ondorioz
betidanik

norbera bizirik irautea da
eragotzitako suizidio bat
(bereari eutsiko balio
organo bakoitzak hilko zintuzke)
eta inoiz ez behin-betikoa

“ez dut inor hil”

erraz da esaten
baina gero gerokoak ikusi
“ez hil inor”

hamar manamendu
guztien artean horra hor
bete ezin dugun bakarra.

THE HORROR! THE HORROR!

esan omen zuen
Ilunbeen bihotzean
Marlon Kurtz jaunak
eta egia zioen

laztura eta laztura
iragana laztura
laztura etorkizuna
laztura

horror

horror

baina bien artean
harridura marka bat
eta harridura horretan
ez dago izurik

ez lehenaldirik
ezta gerorik ere
ikur horietan gaude
orain zu eta biok

han bizi gara
arnasa eginez.

AHP

Abiadura Handiko Poza
nire zoriona zeu zara
istant batean ez dakit nola
etorri zara nigana

zoriontasunak ez dauka hegalik
ez eta burdinbiderik
abiatzeko zaitudalako
gordeta nire barnetik.

BOSTEKOAK

A child needs to make a sand castle even though it makes no sense. In old age, with only a few grains of sand one has the greatest possibility.

SAMUEL BECKETT

Zaharrek
hondar ale
batzuekin dute
ahalbiderik handiena
Samuel?

*

Etxe bat
eta barruan
beste etxe bat eta
horren barruan beste
etxe bat...

*

Hemen
da unea
non zu eta biok
elkarrekin bizi garen
orain.

AZKENA

Gure leihotik parkeko zuhaitzei
adi egon naiz denborak bare nazan

eta egiarekiko arazoa zein den
hostoak astinduz esan didate

topiko urratua baino ez dela
egia askotan baina egia halere

Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetara
zorrien Betiko Itzulera bezain

aurreikusgarri eta ziklikoa
dugu egia edo gure egia

adibidez esate baterako
gauza bakoitzak bere azkena duela

azken bala azken tangoa Parisen
azken botila ardo (nire kasuan

~~bi mila eta zazpiko Syrah bat~~
~~bi mila eta zortziko Priorat bat~~
~~bi mila eta bederatziko Riesling bat~~
~~bi mila eta hamarreko Gigondas bat~~
gogoratzen ez dudan beste ardo bat)

gaur erori den azken hosto hori
dramatismorik gabe utz dezagun

azkenaren zulo neurotikoan
ez gaitzen hondora ene lagunok

egiten dugun oro azken aldia
izango den ala ez den izango

galdetu gabe eta ahaztu gabe
ahalik eta modu dotorenean

ona da denak azkena izatea
agur esateko parada hartzea

eta bizitzari itzultzea

arin

azken muxua

azken orrialdea.

LABA/LURRA

*Sumendipean bizi direnak
sumendiarekin ohitzen dira.*

MAGNUS TUMI, XAVIER MORETEKIN solasean

ISLANDIERA IKASTEN
(*Bill Holm*)

*Astebetetz ez dut tutik ere esaten
eta apurrak besterik ulertu*

*hitzik gabe arinago nabil
urteak dira ez naizela
honenbeste flotatu*

*emadazu agindua...
alde egingo dut
amildegi gainean*

irribarrez.

LEHENENGO ALDIA

A10ean izan zen

Poitiers eta ekaina atzean utzita
arratsaldeko laurak baino lehenago

gidatu gabe loak hartu ninduen
(horregatik konta dezaket hau)

iratzarri nintzen bihurgune gaizto batean
eta freskotasun osoz ikusi nituen
Monet edo Manet bezain inpresionista

(kotxeetan margotzen ote zuten?)
balazta-argiak bezain gorri bizi

mitxoletak pentsatu
eta berehala konturatzea
amapolas ez zela izan

mitxoletak bezala etorri ziren niregana
bizipozez etorritako kuluxka ondoko txinpartak

ardo zurizko eremuan
ziztu biziko kotxe batean
Frantziako landa zainduetan zehar.

ELEBITASUNA

Poema baldin bada ipuinari
nola argazkia filmari
orduan argazkilari nauzue noski

argazki batzuk koloretan egiten ditut
eta beste batzuk zuri-beltzean.

VADID KREFST VARÚÐAR
(TRAFIKO SEINALE BAT)

Non dago pasabidea? Ibaiak aldatu egiten dira

Gurpil arrastoek ez dute dena kontaktzen

Uretan ibiltzeko prest dago zure motorra?

Ba al duzu inor zuri begira pasatzen zarela?

Proba ezazu pasabidea

Seguritate soka erabili

Kolore biziko arropa beroak jantzi

HAMNAVOE

izena bikingoa du
Stromness badiak non
goizak erdaraz argitzen duen

kalatxorien erdal
hizkerarekin batera

George Mackay Brown poetak
hitzeekin margotu zuen bezala

Euklideren argia
teilatuen tropel urdin
eta grisaren gainean

Lezon edo Donibanen
itsasotik bezain gertu

irudien sutan nik ere
eskua jartzen dut atseginez
egun hori guretzat salbatzeko

nahiz eta Hamnavoera ez naizen inoiz
iritsi ez bada paperezko ferry batez

elkarrekin gautzan bitartean
(berriz ere tiraderan koilaretxoak nola)
aldizka gauean zehar

kaiak itsasoa besarkatzen duen bezala
Hamnavoen babesten gara.

HIRUREHUN MILA

300.000 hitzun nahikoak dira
hizkuntza batek bizirik irauteko

eta hizkuntza esaten dudanean
mundua esan nahi dut 300.000
hiztun horientzat eta bat gehiago

(hizkuntzarik ez darabilen hori
ere hizkuntzen bidez egindako
munduan bizi baita)

hiztunak behar dira

gehi Literatura Nobel sari bat
gehi *Bókmenntasjóður* (The Icelandic
Literature Fund) bat eta horrela my friend

300.000 hitzun nahikoak dira
mundu osoan itzulia izateko

Atlantikoaren erdian bazaude

Atlantikoaren erdian
ez dagoen hizkuntzaren bizitza
ez da horren sinplea.

ONDO BIZI

Islandia ez da azpiegitura
non areto bat eraikitzen den
pelikula bat proiektatzeko

egunak jainkoak omen dira
baina nik ahaztu egiten dut

bititza besterik ez dugula
etxe bakarra eta nahikoa
dela saria dela zigorra

hori gogoratu behar nuen
hori zer den ez dakidan arren.

SPÁNVERJAVÍGIN

Martin Martinen seme Villafrancakoa
bere aita zenaren lez Donostian jaioa
itsas gizona izanik hartu du asmoa
bidaia egiteko Islandiara doa

mila seiehun eta hamabostean da
hogeita zazpigarren bere urtemuga
hamalau urte zituela lehenengo aldia
Ternuara joan zen balearen bila

Wikipedia duzue istorioz beteta
euskal baleontziak abiatzen zirela
udara emateko arrantza-gunean
eskuan hiztegi bat euskara-islandiera

itsasoko zakurrak fokak omen dira
itsasoko “sackura” *selur* esaten da
hiztegi batek dio *symphon* dela “gitar”
eta pidgin honetan *sonur* da “semia”

erakartzen nautena dira buruhaustek
nola urte horretan azienda-galerak
jasan behar zituzten minak eta penak
kostaldean izotza etxean goseak

Reykjarfjörðuren badian zeruari ihes
hiru itsasontziek txalupak dituzte
jaitsi eta hitzarmena izenpetu dute
kostaldeko jendeak eta euskaldunek

Martinek ur berotan bainua hartuta
arratsalde partean bisita egitera
oinez abiatu zen lagun batengana
opariak zituela bere alabarentzat

balearen buztanak bailiran enborrak
dilindan mozten ditu Martinen aizkorak
kupela olio z betea daude hiruz ontziak
legatz baten azala dirudi itsasoak

baina enbata bortitza dator supituan
aingura askatuta hondoratu dira
eguna zabaltzean egoera latza da
eguzki apalaren izpien azpian

laurogei lagun dira laba-lur horretan
bizirik atereak baina ozta-ozta
taldea desegin da eta Martinena
urriaren erdian eraso zuten han

Æðey eta Sandeyrin herrixken artean
Martinek errukia eskatzen dienean
morroi batek hiltzera doakionean
jauzi egin ostean sartu da uretan

latinezko salmoak ozenki kantatzen
ihesari ekin dio igeri egiten
islandiarrek txalupaz harrapatu dute
hala Jón Jakintsuak salatuko zien

harkaitz beltzen artean arrastaka eraman
labankada ugariz heriotza eman
harri bati lotuta badian sartzean
urak baretu ziren guztiz bat-batean

horrela dio sagak kondaira zaharrak
Espainiarren hilketak izena duenak
urrundik ikusita ziruditen onak
herri bakoitzak ditu bere sarraskiak

baina zer jazo ote zen ez dakigun arren
irudika dezagun saiatu gaitezen
elkarri konprenitzen orain edo lehen
Islandiera ikasten gure mugen barren.

POSTÚRINN

Aizu zu izan zinen
egun berean bitan topatu genuena
behin batean Verturbærreko posta bulegoan
Atlantikoaren aurreko aparkaleku zabaleko horretan
non kaferik ez baina bai ordea haurrentzako jostailuak
(termoko kafea igerilekuan debalde ematen zuten)
eta gero *dendatxo* esan nahi duen *Melabúðinen*
zure begiek zioten aizu badakit dakizula
lanbide bat baino gehiago dudala
baina demagun hau ez dela western horietako bat
non lagun batek herri berean hiru jardun betetzen
zitzen

zergatik ez dut ahaztu
abstraktuki distiratsu kolorezko
koadrozko alkandora bat zeneramala
eta leku soberarekin espazio zabaleko
kolonia moduko bat zelakoan
Pósturinnetik eskutitzak bidaltzen ari ginela
jendetsuagoa den beste planeta batera
berriz ere ziurtatzen
nazio batekoa zarela
hango jendeari gutunak eta fardelak
eta poemak bidaltzen badizkiozu?

HITZ DEBEKATUAK

“Ametsa” bere forma guztietan
“ametza” berriz
guztiz onargarria izaten da

“alkimia” aspalditik
hitz hori Dire Straitsek erre zuten
beren *Alchemy* egin eta gero
baina “kimika” ondo da
baldin eta “fisika” ondoan ez badu

“herrimina” zer esanik ez
“herio” ahal bada
“habi abandonatuak” saihestu
eta kontuz “Islandia” hitzarekin

herriak ez baitira metaforak.

AURORA BOREALIS

Ederrak dira argiak
hotzak eta geldiezinak
dragoiak edo marrazoak nola

eta poetak dioen bezala
edertasuna arriskutsua da
itxaropena sortzen duelako

argazki lausoa da oroitzapena
baina kasu honetan esango nuke
etxera laster heltzeko itxaropena dela.

BARKATU AMA

Baina

Bilbon lurreratzean

Baionan autobusa hartzean (*Le*

Basque Bondissant, bai)

beti sumatu dut

baikortasunez hau dela

baldarra izan arren

bihotzeko nire ama-lurra.

TERTANGAKO KOPLAK

Espazioren barrunbean badaudela guneak
telefono estaldura gabekoak direnak
hala dio seinaleak Santiagoko mendian
Urduñako mendateko pagadian ibilian

han otsoak harrikadaz baitzituzten akatzen
gaur gabiltza kamera eta gure haurrak goxatzen
Tertangako iturrian bustitako eskua
Walden edo Islandia litzateke lekua

baldin eta horren bila ez bazoaz hortara
aldakorra da mundua baina badu lotura
konfiantza dagoenean bere bilakaeran
erdu eta to zuretzat gorde itzazu galtzetan.

BLESS

Islandiera honezkero ikasi duzu

hizkuntza erlijio edo erlijio hizkuntza
handien grabitate bulkadari
irmo-irmo eusten diozunean
ohi baino goizago edo ohi
baino beranduago oheratuta
ilunpean betiereko ilunpean
barneko beroa pattarra barik
euripean pizten dakizularik
nahiz eta islandieraz ezer ez jakin.

URRUNEKO UNIBERTSITATEAN

*Islandiako krisiaz asko dugu ikasteko.
Ez ezazu inoiz pentsa gertatutakoa ez zaizula axola.
Dena axola zaizu.*

VIGDIS FINNBOGADÓTTIR, XAVIER MORETEKIN
solasean

EGUNKARI BATEN PASARTEA

Hauxe da nire lantokia, formakuntza iraunkorraren etxea. Hemen gabiltzan guztiok egunero zerbait ikasi beharko genuke. Hauxe da gaurko lezioa: esku ezkerren bidea hobea dela esku eskuinarena baino (telefonoa posta elektronikoa baino hobea, aurrez aurrekoa telefonoa baino hobea). Inork ez luke nik baino hobeto hori jakin behar, baina hala ere ahaztu egiten dut. Ikasten nabil etengabe. Islandiera ikasten.

OFIZIOA

Irabazi ezean
ikasi egiten da
filosofo batentzat
emaitza ez da txarra.

ERRESUMA BATUARI LOTZEKO POEMA

Eskoziarrak badoaz ez negar egin
oi Britainia zu Handia zara
itsasadarra bezain zabala

trukean har gaitzazu mesedez
gu ez gara Armada Garaiezina
Kontxara etorri abordaia egitera
gure kirol txit bitxiak ditugu
lasto kapelak janzteko prest

lorategian *picnicak* egiteko
beste Gibraltar bat bihurtuko gara

Bilbo anglofilo hutsa ohi da
behinik behin ez bizkarra eman
beti dugu bozkatzea eta adio esatea

baina denboraren poderioz
brontze kolorezko tea edanez

ezkerreko erreian gidatzen ikasiko dugu
eta Commonwealtheko arbola handiaren
itzalean eseriko gara

Gernikan bezala.

EZ DAKIT

Unibertsitatean
denok hain bizkorrak
garen etxe honetan

(besteak baino bizkorragoak
izan behar dugu eta derrigorrez)

zaila da ahoskatzea
inon baino zailago
honako zeinu hauek:

EZ DAKIT.

LOT

Jendeak bezala askotan hitzek
korrika egin behar dute
bizirik irauteko

mundu hau ez da inorentzat samurra
dibortzioa ez bada
buruko mina eta
etxea txukuntzeke

horregatik beste hizkuntza batera
aterpe eske deserritu direnak
han geratzen dira baina ez mutu

“koitadu” hitza
gazteleraz inork ez darabilena
Bizkaian erbesteratu zen eta
egunero erabiltzen dute han

hitz errefuxiatuok
bestaldera joanez gero
atzera

atzera so

euskaldun batek
doministiku egitean
latinezko esaldi batek

Dominus tecum

arnasa egiten du

eta agur esatean
elkarri ematen diogu
augurium on bat

hizkuntza hilek
bizirik diraute
bestaldera joanez gero
aurrera

aurrera so.

POETIKA EZ HAIN TTIPIA

Behin batean Lisboan Baixatik nembilela
artista ikusi nuen garrasika plazan

manta baten gainean bere opera osoa
erosle baten bila liburuak zeuzkan

nik ez nion erosi poesia ez da arraina
saldu egiten bada ere kaleko azokan

musikaren antzera debalde eskaintzen da
gustuko izan duenak zerbait eman dezan

diziplinaren bidez nortasuna eraikiz
horixe da poetak jasoko duena

poemak idazteak ez zaitu aldatuko
baldin ez badituzu irakurtzen ozen

jendaurrean mintzatzen ez bazara ausartzen
esaten duten hori ez baduzu aditzen.

1512 (LK 17,21)

*On Sebastianen zain egonez,
berdin hura etorri ala ez!*

FERNANDO PESSOA

On Sebastian errege
gordeta zegoena
Lisboara itzuliko da
bere azken ontzian
ibaiadarrean gora
lanbroarekin bat

horixe profezia
baina hemen lanbroak
ekarriko duena
ez da erregea

Nafarroako erresuma
gure artean da.

BURUJABETZA

erraza dirudi–
lehenago egin duzu
baita maizegi egin ere

erraza da baina
ohitura txarrak nekez kentzen
quinientos años no pasan en balde

beti kentzen
eta berriz hartzen
inorentzat ona izango ote?

mendekotasunik gabeko
bizitza zer den
ez dakizu

ez esan betirako
esan oraingoz uzten diozula–
aske bizi gaitezen egun bakar batez.

KELLSEKO LIBURUA IKUSTEAN

Liburu hori ikusi nuen
halaxe berak nahi izan zuen

Trinity College horra joan ginen
gure helburua The Book of Kells zen

ekintza hori baitagokie
Dublinen dauden bisitarietara

hori uste dute jende irlandarrek
aberria non den ondo dakite

Bikingoari ihesi egina
hotzez eta izuz izkiriaturik

txekorrek larru fraideek begi
guztiek zerbait jarri izan zuten

han dakusagu historia eta
aske irauteko gogo irmoa

faltsua balitz? esan nion nik
oroigarriak asmatzen dira

baliteke bai baina ez dut uste
eroa banintz erantzun zidan

gaur ikusi dut egia dela
benetakoa dela uste dut

nahi dudalako sinistu egin dut
mila bat urte gu baino lehen
gaur hauts diren esku anitzek
edertasun hau eman ziguten.

THE XXEN KANTUA GOGOAN
GRAFFITI BAT IKUSTEAN

Daukadan guztia
emango dizut
ilunpetan inork
gogoa ez badu
nik nire burua
emango dizut
eta izango gara
gu biok bi gu

zu gabe gu ez
goaz inora
zu gabe gu ez
gaude moduan
zu gabe gu ez
gara bi gu
gu biok bi gu
gu biok bi gu.

GALES (I)

Severn ibaiaren
gainetik zubiaren
zutabeak

(itsasontzi bikingo
erraldoiaren mastak)

pasa ondoren
Galesen sartu ginen
etxean bezala

muinoak eta ardiak
turistak eta etxeak

Euskal Herriko
iparraldean ginela
esan nezake

baina seinale oro
elebidunak ziren.

ZUBIA

Wordsworthek izkiriatu zionean
Londoni sonetorik onena
irailaren goiz samurra eta gardena
Westminster zubiaren gainean

ireki zen arrosa bat bailitzan
eta izan zuen idazteko sena
hiriaren bihotza islatzen dena
hirien hiritik alde egitean

horrela prosak poesia eman
ta zabaltzen du baina egia esan
kritikoez argitzen ez dutena

da nola lortu zuen bere pena
eta abuztuak duen eromena
itotzea Thamesen ur uherretan.

GALES (II)

Maparen ustez
Tolkienen saga
batera iritsi gara

Y Mynydd Du maite dut
“Mendibeltza” den arren.

KENSINGTON GARDENS

Azaroan
goizeko 7tan
Hyde Parken ondoan
Peter Panen estatuatik ez oso urrun
brontzezko maitagarrien matxinsalto hegaletan
18. edo 19. mendean margotutako zuhaitzen artean

gaueko hotza gordetzen duten ur tantoen gainean
ahate aristokratikoen txangoak oztopatzen
Serpentine inguratzen duen bidexkan
zubipean ttipi-ttapa korrika egiten
zure aurrean dabiltzan
emakumeei darien

l u r r i n a .

GALES (III)

M4 auto-
pistan BBC
piztuta auto-irratian

musika arrotza da
niretzat galesera

iraganean
entzun nuen euskara
bezain freskoa

benetako erdara
nire belarrientzat.

POSPOLO KUTXA

*Grande es lo oscuro,
pero con esta cerillita
yo me alumbro.*

ISABEL ESCUDERO

Bere akatsa, idealista soberan izateko joera. Baina ez erremediorik gabe, filosofiako irakasle bihurtu baitzen.

Beharra bertute bihurtzeak ez du bertutearen beharra gutxitzen.

Ikaslearen paradoxa: dragoi batekin topo egingo duelakoan, txepetx bat aurkitzea.

Ez pentsa metaforak ez direla egiaztatzen: buruhauste batek zure burua hautsi lezake.

Literatur lehiaketetan lehia egiten dutenak ez dira idazlanak, epaimahaikideak baizik.

“Hizkuntzei ez zaie erreparatu behar.” Horra elebakarrenaren uste tipiko bezain ustela.

Kupelatxoak danborrari: “Badakit zertaz mozorrotu zaren.”

Haurrak hezteko gai direnei soilik ugaltzeko baimena eman izan balitzaie, gizakia lurretik aspaldi desagertu litzatekeen.

Itzulpenean galdutakoak ez digu aurkitutakoa kentzen.

Euskal literatura: Joseba Sarrionandiaren *corpusari* oinohar zerrenda.

Poeta: hiztegiarekin asetzen ez dena.

Aforismoa: poema eta axiomaren arteko hibridoa.

KOMETA

un'aria d'altro luogo e d'altro mese e d'altra vita

GIOVANNI PASCOLI

Egun txarra atzokoa
bizitzako errotondak
autoeskolako kotxea
gure aurrean

gure aurrean
jartzen duen horietakoa

Lotsaizuna eta Hoben-ordaina
ez ziren literatura
iragana eta geroa baizik
eta oraingoa
zereginen zerrenda luze hori

baina gaur ondo lo egin dut
pelutxezko hartzen loa
bateriarik gabe direlarik
eta orain badakit zergatik
amets egin dut eta

kometa bat hegaldatu dugu
hondartzako alkandorari botoi bat
josteko saiakera bailitzan
edo zurtoin meheko lore bat
Heaneyren poema baten zeruan

eta poema horrek aire eman dit
–*air from another life and time and place*–
eta poetak beste poeta bati
hartutako bertsolerro horrek
beste batera eraman nau

gora eta behera
haizearekin batera
adimenerako
Igeldo Mendi honetan
harik eta haria eten arte

windfall

“ustekabeko zorion”
esan nahi duen hitzari itsatsia.

CORAZONISTA

Neguan soilik ikusten zaio
Urgulleko mendiari
lurreko azala
 eta Jesusek
xake pieza bat dirudi

neguko egunak lan egiteko
baina nahiago dut jakin
nire arrazoi ofizio honetan
ikastearen atsegin.

SOMMELIER

Uda honetako gogoan dut
musketa exotiko xarmanta espezia eta abrikotekin
mertxika litxi misteriotsu eta amusagarri
plastikozko botila txuri bat Bristoleko ur epel
nire eskuan zeharkatzen ari nintzela
Avon ibaiaren ertza batetik bestera
Clifton zubiaren gainean
uztaileko arratsalde bero batean

2013koa

baina gehiago daude
gerezi eta andere-mahats fresko fruta ugaridun
piper hauts ukituekin eta bukaera iraunkor
Huescako ur delizios hotza harrizko iturrian
Petretxema eta Atxerito igo eta gero
aspaldiko 1996ko abuztuaren hasieran
hasteko

eta jarraitzeko reserva bat ala beste
ahantzi gabe iazko uzta gaur dastatutakoa
jengibre eta lima lurrinezko txinparta gutxiekin
plastikozko baso bat Hernaniko txorrotako ur gasdun
Santa Barbara mendiko tontorrean
sagarrondoaren artean hegan egiten
gehiago ala gutxiago izateak
lehena edo azkena
ez du axola
segi ezazu korrika egiten
ase arte segi ezazu edaten.

ESKER ONAK

Lehenik eta behin, familiari: denagatik; eta Ur Apalategiri, liburu honi egindako harrera eta hobekuntzagatik.

Irakurketak, iradokizunak eta animoak eman dituzten zenbait laguni: Ekhiñe Egiguren, Elizabeth Macklin, Itziar Otegi, Eli Tolaretxipi, Angel Erro, Jose Luis Padron, David Tijero.

Hasierako aipua Mike Fortun antropologoaren *Promising Genomics* (University of California Press, 2008) liburukoa da.

Herbjörg María Björnsson da Hallgrímur Helgasonen eleberri baten narratzailea (*La mujer a 1000º*, Lumen, 2013). Gainontzeko ataleko aipuak Xavier Moreten liburutik datoz (*Islandia, revolución bajo el volcán*, Alba, 2011).

Leonard Cohenen aurkitutako poema Sylvie Simmonsek egindako biografian dago (*I'm Your Man*, Haper Collins, 2012).

“Ez hil inor” poeman, parentesien artean dagoena Ezequiel Di Paoloren hitzaldi bati zor diot.

Spánverjavígin hitzak “Espainiarren hilketa” esan nahi du islandieraz. Izen horretako saga edo kondairaren berri aspaldi izan nuen, laurogeita hamarreko hamarkadan, gure fakultatean Erasmus zebilen Haukur Ástvaldsson

lagunak erakutsi zidanean, egiazko pasadizo hura Islandiako ipar-mendebaldeko bere sorterrian gertatu zela esanez. Islandian egonaldi bat egitera nindoala, Patxi Hipolito nire koinatua izan zenak ekarri zidan *Itsasoa (Los vascos y el mar)* entziklopediako artikulua bat, zeinean Martin Villafrancakoari buruzko datuak eta Jón Jakintsuaren sagaren itzulpena agertzen ziren. Poema honen bertsiotzat argitaratu zuten *Hitzen Uberan* webguneko lagunek.

“Aurora Borealis” Oier Guillanentzat da, bere *Elkartasun basatia* liburuari (Susa, 2013) bertso-lerro bat zor dio eta.

Ernestina de Champourcinen aipua bere “Carta a Thomas Merton” poematik dator (*Cartas cerradas*, Finisterre, 1968).

“1512” poeman, Pessoren aipua Iñigo Roque itzuli zuen (*Poemak pluralean*, Denonartean, 2012).

Anjel Lertxundiren zutabe baten imitazioan, “Larunbateko goiz batez...” poeman aipatzen den taldea (eta bandera) ez da Nafarroa Beherekoa, Zuberoakoa baizik, Larraineko dantzariak lizentzia poetikoa barkatuko ditzatelakoan.

“Hauxe da” Tim Minchinen *Not Perfect* kantuari erreferentzia ugari egiten dizkio, baita Angel Erroren 50. epigramari ere (*Eta harkadian ni*, Elkar, 2002).

“Tertangako koplak” Txemari Ortiz de Lunarentzat dira.

“2013ko abuztuaren 31n” poemak (Lluïsa Sole eta Jesus Ibañezi eskainia) erreferentzia egiten die Matthew Arnolden “Dover Beach” eta Samuel Taylor Coleridgeren “The Rime of the Ancient Mariner” klasikoei, Juanjo Olasagarrek eta Joseba Sarrionandiak itzulita (*T*, Alberdania, 2008; *Marinel zaharraren balada*, Pamiela, 1995).

Liburu honen izenburua eta itzuli dudana poema (“Learning Icelandic”) Bill Holmen liburu honetan topatu nituen: *The Dead Get by with Everything* (Milkweed, 1991).

“Kometa” poema Txetxu Ausinentzat da, Seamus Heaneyren “A Kite for Aibhín” (*Human Chain*, Faber and Faber, 2010) berak ekarri zidan eta.

EGUNERO IRAKURTZEN DELAKO
BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna.*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala.*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare.*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean.*
6. Aurelia Arkotxa: *Fragmentuak.*
7. Karlos Linazasoro: *Esan gabe doaz.*
8. Antonio Casado da Rocha: *Esku ezkerrez.*
9. Karlos Linazasoro: *Apenas.*
10. *Iragana gero eta handiagoa da.*
11. Fito Rodriguez: *Biktimari agurka.*
12. Txomin Peillen: *Jan Dabrowski.*
13. Mikel Ibarguren: *Bide batez esanda.*
14. Antonio Casado da Rocha: *Islandiera ikasten.*